

**HERNANIKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO AI (HI) FL.07.1 LURZATIAN ERREGIMEN OROKORREKO BABES OFIZIALEKO 6 ETXEBIZITZA ETA HORIEN ERANSKINAK ESLEITZEKO OINARRIAK (FLORIDA).**

### **1.- XEDEA**

Oinarri hauen xedea, hain zuzen ere, Hernaniko Arau Subsidiarioetako jarduketa integratuko P1 (HI) FL.07.1 lurzatian kokatuta dauden erregimen orokorreko babes ofizialeko 6 etxebizitza eta horien garaje eta trastelekuak jabetza-erregimenean esleitzeko baldintzak finkatzea da.

Oinarriak onesteko unean Eusko Jaurlaritzaren babes ofizialaren alorrean indarrean dagoen araudia garatuko dute oinarriok, eta araudi hori izango dute ardatz. Oinarri hauetan aurreikusi ez diren gai guztietan aipatutako Araudi horretan aurreikusitakoa aplikatuko da.

Etxebizitzek eta horiei atxikitako garaje eta trastelekuak erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren kalifikazio iraunkorra izango dute. Hori dela eta, erkidegoko araudian ezarritako eskualdaketen gehieneko prezioaren mende eta lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidearen mende egongo dira iraunkorki.

Zozkatuko diren etxebizitzak, garajeen eta trastelekuak deskribapena eta prezioa Oinarri Arautzailen hauen I. Eranskinean ageri dira.

### **2.- ETXEBIZITZA BAT ESKURATZEKO BALDINTZAK.**

Pertsona fisikoek babes ofizialeko etxebizitzak eskuratu ahal izateko, pertsona horiek edo beren bizikidetzak-unitateak, jarraian zehaztuta datozen baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute aldez aurretik:

#### **a) Baldintza pertsonalak:**

1.- Adin nagusikoa edo adingabeko emantzipatua izatea.

Bizikidetzak-unitate bat izanez gero:

**BASES PARA LA ADJUDICACIÓN DE 6 VIVIENDAS DE PROTECCIÓN OFICIAL DE RÉGIMEN GENERAL Y SUS ANEJOS EN LA PARCELA AI (HI) FL.07.1 DE LAS NN.SS DE HERNANI (FLORIDA).**

### **1.- OBJETO**

Estas bases tienen por objeto establecer las condiciones para la adjudicación en régimen de propiedad de 6 viviendas de protección oficial de régimen general, con sus garajes y trasteros, situadas en la parcela P1 de la actuación integrada HI. FL07.1 de las NN.SS de Hernani.

Estas bases desarrollan y tienen como fundamento la normativa vigente a la aprobación de estas bases, en materia de protección oficial del Gobierno Vasco. En todo lo no previsto en estas bases será de aplicación lo previsto en la citada normativa.

Las viviendas y los garajes y trasteros a ellas vinculados, tendrán la calificación permanente de vivienda de protección oficial de régimen general. Consecuentemente, estarán sujetas de forma permanente tanto al precio máximo de transmisión como al ejercicio del derecho de tanteo y retracto establecido en la normativa autonómica.

La descripción y precio de las viviendas, garajes y trasteros a sortear se incluye en el Anexo I de estas Bases Reguladoras.

### **2.- CONDICIONES PARA ACCEDER A UNA VIVIENDA.**

El acceso a las viviendas de protección oficial por parte de personas físicas requerirá la previa acreditación de los requisitos que a continuación se especifican por parte de éstas o de su unidad convivencial:

#### **a) Condiciones personales:**

1.- ser mayor de edad, o menor emancipado o emancipada.

En el caso de tratarse de una unidad convivencial:

1.1. Ezkontza bidez elkartutako pertsonak edo Bikoteen Erregistroan bikote gisa inskribatuta daudenek etxebizitza bat eskuratzen dutenean titulartasun partekatuan izan beharko du. Erosketa bidez eskuratzen dutenean, horietako bakoitzaren partaidetza-ehunekoak berdina izan beharko du, senar-emazteen edo inskribatutako egitatezko bikotearen erregimen ekonomikoa ondasun-banantzearena izan ezean, eta hala bada, horietako bakoitzak etxebizitzaren titulartasunean izango duen partaidetza-ehunekoak desberdina izan daiteke.

1.2. Babes publikoko etxebizitza bat erosketa bidez eskuratzen duten bizikidetzak-unitateko gainerako kide adin nagusi guztiek haren titular izan beharko dute, partaidetza berdinarekin, lerro zuzeneko odol-ahaidetasunezko harreman batek elkartzen dituzenean izan ezik (aurrekoek eta ondorengoek).

1.3. Esleipena egin ondoren bikote izaera mantentzen ez duten egitatezko bikoteak baldin badira, eta etxebizitza behin betiko bi kideetako nori esleitu behar zaion erabakitzeari begira, ondorengo arau hauek ezarri dira, familiako etxebizitza erabiltzeari buruz ebatzi duen epai irmorik ez dagoen kasuetarako:

a) Bikoteko bi kideek bereizirik esleipen egokirako eskatutako betebeharrak betetzen badituzte, haiek erabakitzen duten pertsonari esleitu zaio, eta adostasunik ez badago, esleipena indarrak gabe geratuko da. Adostasunik ez dagoela joko da baldin eta hori egiaztatzeko emandako epea igaro ondoren ez bazaio Administrazioari adostasunik jakinarazi.

b) Desegindako bikoteko pertsona batek bakarrik betetzen baditu betebeharrak, betebeharrak horiek betetzen dituen pertsonaren izenean esleitu da etxebizitza behin betiko.

1.4. Esleipena egin ondoren banandu edo dibortziatu diren senar-emazteen kasuan epai irmorik baldin badago, epai horrek dioena errespetatuko da.

1.1. El acceso a una vivienda por personas unidas por matrimonio o inscritas como pareja en el Registro de parejas de hecho deberá ser de titularidad compartida. En el caso de acceso en compra, el porcentaje de participación de cada uno de ellos, deberá ser el mismo, salvo que el régimen económico del matrimonio o de la pareja de hecho inscrita, fuera el de separación de bienes, en cuyo caso, el porcentaje de participación de cada uno de ellos en la titularidad de la vivienda, podrá ser distinto.

1.2. Todas las demás personas de la unidad convivencial mayores de edad que accedan en compra a una vivienda de protección pública, deberán ser titulares de la misma, con idéntica participación, excepto cuando estén unidas por una relación de parentesco por consanguinidad en línea recta (ascendientes y descendientes).

1.3. En el supuesto de parejas de hecho que tras la adjudicación no mantengan la condición de pareja, y en orden a determinar a cuál de las dos personas se le adjudique definitivamente la vivienda, se establecen las siguientes reglas, para el caso de que no exista sentencia judicial firme que disponga sobre la utilización del domicilio familiar:

a) Si las dos personas que componen la pareja cumplen separadamente los requisitos exigidos para la concreta adjudicación, se adjudicará a quien ellas acuerden y en defecto de acuerdo, la adjudicación quedará sin efecto. Se presume que no existe acuerdo, cuando transcurrido el plazo concedido para su acreditación, no se hubiese comunicado a la Administración, la existencia del mismo.

b) Si solo una de las personas de la pareja disuelta cumple los requisitos, la vivienda se adjudicará definitivamente a nombre de la persona que cumpla dichos requisitos.

1.4. En el supuesto de matrimonios que tras la adjudicación se hayan separado o divorciado habiendo recaído sentencia judicial firme se estará a lo que en ella se disponga.

2.- Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren Eskatzaileen Erregistroan (Etxebide) Hernanin Babes Ofizialeko Etxebizitzen eskatzaile gisa egoki inskribatuta egotea **2022ko urtarrilaren 31n**, edo data horretan oraindik ere Etxebideko zerrendetako kide ez badira, zozketa horretan parte hartzeko eskaera egina izatea Hernaniko Udaleko Herritarren Harrera Zerbitzuan edo PROMOCIONES ARROKA 2017 S.L.ren bulegoetan (Lugaritz Pasealekua 21 - Sukia Eraikina, 20018 Donostia, Tel: 943.42.95.21) eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen. Zozketa egin ondoren, eta zozketako parte-hartzaile guztiei eskaini ondoren oraindik ere etxebizitza batzuk esleitu gabe geratzen badira, ezarritako epea baino geroago eskabidea egin dutenei eskaini ahal izango zaizkie, eta eskabidea egindako hurrenkeraren arabera erantzungo zaie.

3.- Erroldatze-betebeharrak edo udalerrarekin duen lan-atxikimenduarenak.

Onartzeko betebeharrak gisa ezarrita ez dagoen arren, ondorengo lehentasun-hurrenkera hau finkatu da zozketako kupoei dagokienez:

1. Kupoa.- Bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsonetako batek ohiko bizilekua Hernanin edukitzea eta azkeneko 2 urteetan bertan etengabe erroldatuta egotea, edo gutxienez 5 urtez azkeneko 10 urteetan.

2. Kupoa.- Bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsonetako batek Hernanin lan egin izana azkeneko 10 urteetan.

3. Kupoa.- Lehentasunen hirugarren lekuan, baina betiere eskaintza eskaera baino handiagoa izanez gero, beste edozein pertsona.

#### **b) Etxebizitza-premiaren baldintzak:**

Erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak jabetzan eskuratzeko indarreko araudian, eta bereziki, martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuan (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2008ko martxoaren 28an argitaratua) eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako Sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduan (Euskal Herriko

2.- Estar convenientemente inscritas como personas demandantes de Vivienda de Protección Oficial en propiedad en Hernani en el Registro de Solicitantes del Servicio Vasco de Vivienda (Etxebide) a **fecha 31 de enero de 2022** o aún no siendo integrantes de las listas de Etxebide en esa fecha, solicitar su participación en el sorteo en el Servicio de Atención a la Ciudadanía del Ayuntamiento de Hernani o en las oficinas de PROMOCIONES ARROKA 2017 S.L (Paseo Lugaritz 21 - Edificio Sukia, 20018 Donostia/San Sebastián, Tlf : 943.42.95.21) con carácter previo a la conclusión del plazo de presentación de las solicitudes. Una vez efectuado el sorteo y si quedaran viviendas sin adjudicar una vez ofrecidas a todas las personas participantes del sorteo, podrán ser ofrecidas a aquellas personas que hubieran realizado una solicitud en fechas posteriores al plazo establecido siendo atendidas en orden de solicitud realizada.

3.- Condiciones de empadronamiento o vinculación laboral con el municipio.

Aunque no se establece como requisito de admisión, se establece el siguiente orden de preferencia en lo que a cupos del sorteo se refiere:

Cupo 1.- Alguna de las personas componentes de la unidad convivencial tenga residencia habitual y empadronamiento ininterrumpido en Hernani durante los últimos 2 años o al menos 5 años en los últimos 10 años.

Cupo 2.- Alguna de las personas componentes de la unidad convivencial trabaje en Hernani durante los últimos 10 años.

Cupo 3.- En tercer grado de preferencia y siempre que la oferta supere a la demanda, cualquier otra persona.

#### **b) Condiciones de necesidad de vivienda:**

Cumplir con los requisitos de necesidad de vivienda establecidos en la normativa vigente para el acceso a la propiedad de viviendas de protección oficial de régimen general, en particular en el Decreto 39/2008 de 4 de marzo (publicado en el Boletín Oficial del País Vasco de fecha 28 de marzo de 2008) y en la Orden de 15 de octubre de 2012, del Consejero

Agintaritza Aldizkarian 2012ko urriaren 31n argitaratua) ezarritako etxebizitza premiaren betebeharrak betetzea.

Hain justu ere, bizikidetz-unitateko kideetatik inork ez izatea etxebizitarik estatuko lurraldean, dela jabetza osoan edo azalera-eskubideaz, dela bizi osoko gozamenerako eskubide errealean.

Etxebizitza edukiz gero, aurrez aipatutako Dekretuan edo Aginduan ezarritako salbuespenetako bat dagoela egiaztatu beharko da.

### C) Baldintza ekonomikoak:

Erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak jabetzan eskuratzeko indarreko araudian ezarritako betebeharrak ekonomikoak betetzea, eta bereziki, 2011ko irailaren 14ko Agindua, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako Sailburuarena (Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian 2011ko irailaren 30ean argitaratua), martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 16 eta 19 artikulua aldatzen dituena.

Hain justu ere, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak erosteko **haztatutako gehieneko diru-sarrerak** ezin daitezke izan urteko 39.000 €tik gorakoak, eta erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak erosteko **haztatutako gutxieneko diru-sarrerak** ezin daitezke izan urteko 12.000 €tik beherakoak.

Diru-sarrerak zenbatzeko, kontuan hartuko dira 2022ko ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan aitortutako diru-sarrerak (2021eko diru-sarrerak).

### 3.- ESKAERAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

Etxebideko datu-baseetatik datozen pertsona hautagaiek alde aurretik deialdi honen xede diren etxebizitzaren esleipendun izateko betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu duela joko da, azkeneko 10 urteetan Hernaniko udalerriarekin lan-atxikimendua egiaztatzeari dagokiona izan ezik.

de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, (publicado en el Boletín Oficial del País Vasco de fecha 31 octubre de 2012).

En concreto, que ninguna de las personas que componen la unidad convivencial dispone de vivienda en el ámbito estatal, bien en propiedad plena o superficiaria, bien por derecho real de disfrute vitalicio.

En el caso de disponer de vivienda se deberá acreditar la concurrencia de alguna de las excepciones establecidas en el Decreto u Orden mencionados anteriormente.

### C) Condiciones económicas:

Cumplir con los requisitos económicos establecidos en la normativa vigente para el acceso a la propiedad de viviendas de protección oficial de régimen general, en particular los establecidos en la Orden de 14 de septiembre de 2011 del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes (publicado en el Boletín Oficial del País Vasco de fecha 30 de septiembre de 2011) que modifica los artículos 16 y 19 del Decreto 39/2008 de 4 de marzo.

En concreto los **ingresos máximos ponderados** para la compra de viviendas de protección oficial de régimen general no podrán ser superiores a 39.000. € anuales y los **ingresos mínimos ponderados** para la compra de viviendas de protección oficial de régimen general no podrán ser inferiores a 12.000 € anuales.

Para el cómputo de los ingresos se tendrán en cuenta los declarados en el Impuesto sobre la Renta de las Persona Físicas del ejercicio 2022 (ingresos del año 2021).

### 3.- DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR JUNTO CON LA SOLICITUD.

Se considerará que aquellas personas optantes que provengan de las bases de datos de Etxebide han presentado previamente la documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos para resultar persona adjudicataria de las viviendas objeto de la presente convocatoria, salvo la constatación, si se diera, de la vinculación laboral durante los

Hala bada, pertsona hautagaiak Hernaniko Udaleko Herritarren Harrera Zerbitzuan edo PROMOCIONES ARROKA 2017, S.L.ren bulegoetan aurkeztu beharko du egiaztagiri hori, zozketan parte hartzeko eskabidearekin batera (Hernaniko Udalak sustapen honetarako prestatu duen eskabide normalizatuari jarraiki).

Aldez aurretik Etxebiden inskribatuta ez dauden pertsona hautagaiek zozketan parte hartzeko eskabidea Hernaniko Udaleko Herritarren Harrera Zerbitzuaren bitartez edo PROMOCIONES ARROKA 2017, S.L.ren bulegoen bitartez egin behar badute, eskaera-orriarekin batera (Hernaniko Udalak sustapen honetarako prestatu duen eskabide normalizatuari jarraiki) ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

- Eskatzailearen NANaren fotokopia eta bizikidetzaren unitatea osatzen duten 14 urtetik gorako pertsona guztiena. Adingabekorik baldin badago, familia-liburuaren fotokopia.
- Dagokion kasuan, udalerrarekin lan-atxikipena edukitzea egiaztatzen duen agiria (azken 10 urteetan Hernanin lan egin izana), dela lan egiten den enpresa edo erakundearen ziurtagiriaren bidez edo jarduera ekonomikoen ziurtagiriaren bidez.
- Kotizazio gabeko prestazioak jasotzen badira, dagokion erakundeak horiei buruz egindako ziurtagiria.

#### 4.- BAIMENAK.

39/2015 Legearen 28. artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki, Hernaniko Udalak kontsultatuko du zuzenean, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez Gipuzkoako Foru Ogasunean, eta interesdunak horren aurka egiten ez badu, dagozkion etxebizitzaren eta horien eranskinak esleitzeko zozketan parte hartzeko baldintzak betetzen diren egiaztatzeko behar den informazioa eta, bereziki, bizikidetzaren unitateko kide guztien ekitaldiko diru-sarreraren eta etxebizitza-premiaren gaineko honako dokumentu hauek:

últimos 10 años con el municipio de Hernani.

En tal caso, la persona optante deberá presentar dicha acreditación bien en el Servicio de Atención a la Ciudadanía del Ayuntamiento de Hernani o en las oficinas de PROMOCIONES ARROKA 2017 S.L., junto con la instancia de solicitud para participar en el sorteo (de acuerdo con el modelo normalizado para esta promoción del Ayuntamiento de Hernani).

Aquellas personas optantes que no estuvieran inscritas previamente en Etxebide y fueran a solicitar su participación en el sorteo a través del Servicio de Atención a la Ciudadanía del Ayuntamiento de Hernani o de las oficinas de PROMOCIONES ARROKA 2017 S.L. deberán aportar junto con la instancia de solicitud (de acuerdo con el modelo normalizado para esta promoción del Ayuntamiento de Hernani) la siguiente documentación:

- Fotocopia del DNI de la persona solicitante y de todas las personas mayores de 14 años que compongan la unidad convivencial. Si existen hijos o hijas menores, fotocopia del libro de familia.
- Si procede, certificado de empresa u organismo en que trabaja o certificado de actividades económicas que acrediten vinculación laboral con el municipio (trabajar en Hernani durante los últimos 10 años).
- En caso de percibir prestaciones no contributivas, certificado de las mismas expedido por el organismo correspondiente.

#### 4.- AUTORIZACIONES.

De conformidad con lo establecido en el artículo 28 de la Ley 39/2015 y en el artículo 6.1 del Reglamento (UE) 2016/679, el Ayuntamiento de Hernani consultará directamente, a través del nodo de interoperabilidad NISAE, en la Hacienda Foral de Gipuzkoa, y salvo oposición de la persona interesada, la información necesaria para comprobar el cumplimiento de los requisitos para participar en el sorteo de adjudicación de las viviendas y sus anejos correspondientes y, en particular, los siguientes documentos relativos a los ingresos y necesidad de vivienda de todas las personas que componen la unidad convivencial:



- Amaitutako azken ekitaldiari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ).
- Ondasun higiezinak Gipuzkoan eta Gipuzkoatik kanpo.

Hernaniko Udalak zuzenean jasoko ditu erroldako datuak.

Udalak datuak kontsultatzeari uko eginez gero, eskatzaileak bizikidetzaren unitateko kide guztien ekitaldiko diru-sarreraren eta ondasun higiezinaren gaineko egiaztapenak aurkeztu beharko ditu.

#### 5.- ESLEITZEKO MODUA.

Hernaniko Udaletxeko Batzar Aretoan notarioaren aurrean egindako zozketa publiko baten bidez esleituko dira etxebizitzak, eta zozketaren data ekitaldi horri ahalik eta zabalkunderik handiena bermatzen dioten hedabideetan ezagutaraziko da, 2.a) 3 artikuluan finkatutako lehentasun-hurrenkerarekin bat etorritik.

#### 6.- ZOZKETAN PARTE HARTUKO DUTENAK

Etxebizitza hauek esleitzeko zozketan parte hartu ahal izango dute Hernaniko jabetza erregimeneko BOE etxebizitzaren eskatzaile gisa Etxebiden 2022ko urtarrilaren 31n inskribatuta dauden eta oinarri hauetako betebeharrak eta babes ofizialaren alorrean indarrean dagoen araudian ezarritakoak betetzen dituzten pertsonak, baldin eta beren eskabidea aurkezten badute (Hernaniko Udalak sustapen honetarako prestatu duen eskabide normalizatuari jarraiki), bai Hernaniko Udalaren Herritarren Harrera Zerbitzuan edo bai PROMOCIONES ARROKA 2017 S.L.ren bulegoetan, Donostian (Lugaritz Pasealekua 21, Sukia Eraikina) oinarri hauen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik kontatzen hasi eta 30 laneguneko epearen barruan.

Hernaniko Udalak, Oinarri hauek onetsi ondoren, Hernaniko jabetza-erregimeneko BOE etxebizitzaren eskatzaileen artean oinarri

- Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas correspondiente al último ejercicio finalizado (IRPF).
- Bienes Inmuebles en Gipuzkoa y fuera de Gipuzkoa.

El Ayuntamiento de Hernani accederá directamente a los datos del padrón.

En el caso de se niegue a que el Ayuntamiento consulte los datos, la persona solicitante deberá aportar la documentación acreditativa de los ingresos del último ejercicio finalizado y de los bienes inmuebles, de todas las personas que componen la unidad convivencial.

#### 5.- FORMA DE ADJUDICACIÓN.

La adjudicación de las viviendas se realizará mediante sorteo público notarial en el Salón de Plenos del Ayuntamiento de Hernani en fecha que se dará a conocer en los medios de comunicación que aseguren la mayor difusión del acto y de acuerdo con el orden preferencial de cupos determinado en el artículo 2.a) 3.

#### 6.- PARTICIPANTES EN EL SORTEO.

Podrán tomar parte en el sorteo para la adjudicación de estas viviendas las personas que se hallen inscritas en Etxebide a fecha 31 de enero de 2022 como demandantes de vivienda de VPO en régimen de propiedad en Hernani y las personas solicitantes que cumplan los requisitos de estas Bases y los establecidos en la normativa vigente en materia de protección oficial que presenten su solicitud (de acuerdo con el modelo normalizado para esta promoción del Ayuntamiento de Hernani) bien en el Servicio de Atención a la Ciudadanía del Ayuntamiento de Hernani o en las oficinas de PROMOCIONES ARROKA 2017 S.L., sitas en Donostia/San Sebastián (Paseo Lugaritz 21, Edificio Sukia) en el plazo de 30 días hábiles contados desde la publicación del anuncio de estas bases en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

El Ayuntamiento de Hernani, una vez aprobadas las presentes Bases solicitará a Etxebide la relación de solicitantes de VPO en

hautako betebeharrak betetzen dituztenen zerrenda eskatuko dio Etxebideri, bertan zehaztutako kupoen lehentasun hurrenkerarekin bat etorriko dena.

#### 7.- BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu, aurkeztutako dokumentazioa egiaztatu eta Etxebideko eskatzaileen zerrenda erdietsi ondoren, onartutako eta baztertutako eskatzaileen behin-behineko zerrendak prestatuko dira bizilekuaren edo udalarekin duten lan-atxikimenduaren arabera dituzten lehentasun kupoak kontuan izanik, eta hala egokitzen denean, baztertua izateko arrazoia del motivo de la exclusión adieraziko da.

Zerrenda horiek ikusgai jarriko dira Hernaniko Udaleko iragarki tauletan, Udalaren webgunean ([www.hernani.eus](http://www.hernani.eus)) eta PROMOCIONES ARROKA 2017 S.L.ren webgunean ([www.sukia.com](http://www.sukia.com)), hamar laneguneko epe batez.

Hamar eguneko epe horretan, baztertutako eskatzaileek erreklamazioa jarri ahal izango dute, baldin eta baztertze horretarako arrazoirik ez dagoela iruditzen bazaie. Erreklamazio hori Hernaniko Udaleko Herriarren Harrera Zerbitzuan idatziz aurkeztu beharko da, edo PROMOCIONES ARROKA 2017 S.L.ren bulegoan, Donostian (Lugaritz Pasealekua 21, Sukia Eraikina), aipatzen diren arrazoiaren lagungarri beharrezkotzat jotzen diren frogagiri guztiak gehituta.

Eskatzaileen hiru zerrenda prestatuko dira: bat, udalerrian bizilekua edukitzearen betebeharra betetzen duten eskatzaileekin, bestea udalerriarekin lan-atxikimenduaren betebeharra betetzen dutenekin, eta beste zerrenda bat, betebeharrak betetzen ez dituztenekin, eta zerrenda bakoitzeko eskatzaileei hurrenkeraren arabera zenbaki bat izendatuko zaie.

Eskatzaileen kopuru osoa zozketatu beharreko etxebizitza kopurua baino txikiagoa izanez gero, enpresa sustatzaileak zuzenean besterendu ahal izango ditu esleitzen ez direnak, baina beti eta kasu guztietan, horrelako etxebizitzek bete behar dituzten lege-zehaztapenak beteko dituzte.

régimen de propiedad en Hernani que cumpla con los requisitos de las presentes bases y coincidente con el orden preferencial de cupos determinado en las mismas.

#### 7.- LISTAS PROVISIONALES.

Vencido el plazo de presentación de solicitudes previa comprobación de la documentación presentada y obtenida la relación de solicitantes de Etxebide, se elaborarán las listas provisionales de las personas solicitantes admitidas y excluidas por cupos de preferencia según requisitos de residencia o vinculación laboral con el municipio, con mención en su caso del motivo de la exclusión.

Dichas listas se expondrán en los tablones de anuncios del Ayuntamiento de Hernani, en la página web del Ayuntamiento ([www.hernani.eus](http://www.hernani.eus)) y en la página web de PROMOCIONES ARROKA 2017 S.L. ([www.sukia.com](http://www.sukia.com)) durante el plazo de diez días hábiles.

En el mismo plazo de diez días las personas solicitantes excluidas podrán interponer una reclamación, en caso de que juzguen que tal exclusión es injustificada. Dicha reclamación deberá presentarse por escrito en el Servicio de Atención a la Ciudadanía del Ayuntamiento de Hernani o en las oficinas de PROMOCIONES ARROKA 2017 S.L., sitas en Donostia/San Sebastián (Paseo Lugaritz 21, Edificio Sukia) acompañada de cuantos documentos probatorios se entiendan necesarios para apoyar las razones que se expongan.

Se confeccionarán tres listas de solicitantes: una con las personas solicitantes que cumplan los requisitos de residencia, otra con las que cumplan los requisitos de vinculación laboral con el municipio, y otra lista con las que no cumplan, asignando un número correlativo a las personas solicitantes de cada lista.

En caso de que el número total de solicitantes fuese inferior al número de viviendas a sortear, la empresa promotora podrá enajenar directamente las no adjudicadas siempre y en todo caso cumpliendo con las determinaciones legales a las que estén sujetas este tipo de viviendas. Las nuevas solicitudes de quienes

Zozketan parte hartu ez duten eskabide berriei eskabide-hurrenkeraren arabera erantzungo die sustatzaileak, eta itxarotzerrendan sartuko ditu.

#### **8.- BEHIN BETIKO ZERRENDAK ETA ETXEBIZITZEN ZERRENDA.**

Erreklamazioak ebatzi ondoren, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak ikusgai jarriko dira Hernaniko udaletxeko iragarki tauletan, Udalaren webgunean ([www.hernani.eus](http://www.hernani.eus)) eta PROMOCIONES ARROKA 2017 S.L.ren webgunean ([www.sukia.com](http://www.sukia.com)).

Behin betiko zerrendak onesten dituen erabakiaren aurka berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da aukeran edo, hala egokitzuz gero, administrazioarekiko auzi errekurtsoa.

Behin betiko zerrenda horietan ondorengo datuak jasoko dira:

- Eskabidearen burualdean ageri denaren nortasun-agiri nazionala eta izen-abizenak.
- Zer kupotarako parte hartzen duen.

Parte-hartzaileen behin betiko zerrendetan onartu gisa agertzeak ez du esan nahi eskatutako baldintzak eta betebeharrak betetzen direnik, horiek etxebizitzak behin betiko esleitu aurretik egiaztatuko baitira.

#### **9.- ZOZKETA**

Parte hartu duten pertsonen behin betiko zerrendak argitaratzearekin batera, zozketa zein egunetan eta zein ordutan egingo den adieraziko da. Zozketa hori Notarioaren aurrean egingo da. Hori ikustera joan nahi duen edonor sartu ahal izango da bertara.

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Politiken Sailak Babes Ofizialeko Etxebizitzen Behin Behineko Kalifikazioan emandako espedientean izendatutako zenbakiarekin joango da zozkatutako finka bakoitza.

Hiru zozketa egingo dira aldi berean egun berean, eta zerrenda bakoitzetik zenbaki bat

no hubieran participado en el sorteo, serán atendidas en orden de solicitud realizada por parte de la promotora, incorporándolas a la lista de espera.

#### **8.- LISTAS DEFINITIVAS Y RELACIÓN DE VIVIENDAS.**

Una vez resueltas las reclamaciones se expondrán los listados definitivos de personas admitidas y excluidas en los tablones de anuncios del Ayuntamiento de Hernani, en la página web del Ayuntamiento ([www.hernani.eus](http://www.hernani.eus)) y en la página web de PROMOCIONES ARROKA 2017 S.L. ([www.sukia.com](http://www.sukia.com)).

Contra el acuerdo aprobatorio de las listas definitivas se podrá interponer recurso de reposición potestativo o, en su caso, recurso contencioso- administrativo.

Dichas listas definitivas contendrán los siguientes datos:

- Documento nacional de identidad y nombre y apellidos de quien encabece la solicitud.
- Cupo por el que se participa.

La inclusión como personas admitidas en las listas definitivas de participantes no presupone el cumplimiento de las condiciones y requisitos exigidos, que se comprobarán con anterioridad a la adjudicación definitiva de las viviendas.

#### **9.- EL SORTEO.**

A la vez que se publiquen los listados definitivos de las personas participantes se indicará día y hora de la celebración del sorteo. Este se llevará a efecto ante Notario. El acceso será libre para cualquier persona que quiera presenciarlo.

Cada finca sorteada se corresponderá con el número asignado en el expediente otorgado por el Departamento de empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco en la Calificación Provisional de las Viviendas de Protección Oficial.

Se celebrarán tres sorteos consecutivos el mismo día, extrayéndose un número de cada





atera ondoren, horren arabera ordenatuko dira zerrenda bakoitzeko eskatzaile guztiak, eta kontuan hartuko da udalerrian bizilekua edukitzearen betebeharra betetzen duten eskatzaileen zerrenda joango dela lehenik, udalerriarekin lan-atxikimendua edukitzearen betebeharra betetzen duten eskatzaileen zerrenda bigarrenik, eta beste zerrenda hirugarren tokian joango dela, eta horien artean osatuko dela behin-behineko zerrenda.

Lehen kupotik hautatutako lehen pertsonari izendatuko zaio Lan eta Gizarte Politikarako Sailak Babes Ofizialeko Etxebizitzaren Behin Behineko Kalifikazioan egindako espedienteko lehen etxebizitza. Eta gainerakoak hurrenkerari jarraiki izendatuko dira.

## 10.- ESLEIPENDUNAK

Notarioaren aurrean egingo den zozketan etxebizitza jakin bat izendatuko zaio, espediente-zenbakian oinarrituta, zozketan onuradun izan den hautagai bakoitzari.

Zozketan erabakitako hurrenkerari jarraiki, sortzen diren hutsuneak betetzeko itxarote zerrendak prestatuko dira. Kasu horietan guztietan, esleipendunik gabe geratu diren etxebizitzak hutsunea gertatu den kupoaren arabera betetzen joango dira.

Behin-behineko esleipendunen zerrendak, itxarote-zerrenda ere barne, Hernaniko Udaleko iragarkien tauletan, Udalaren webgunean ([www.hernani.eus](http://www.hernani.eus)) eta PROMOCIONES ARROKA 2017 S.L.ren webgunean argitaratuko dira ([www.sukia.com](http://www.sukia.com)), eta 10 laneguneko epealdi bat irekiko da erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Behin-behineko esleipena pertsonalki jakinaraziko zaie onuradun izan direnei, eta hala egokituz gero, dei egingo zaie 10 laneguneko epean aldeztu aurretik egiaztatu ez dituzten eta nahitaez bete beharrekoak diren betebeharrei buruzko agiriak aurkeztu ditzaten. Aipatutako eskakizun hori betetzen ez duten pertsona guztiak uko egiten diotela ulertuko da, eta xehetasun hori dela eta, dagokion itxarote zerrendan ageri diren hurrengo pertsonari aukera berri bat emango

lista a partir del cual se ordenarán todas las personas solicitantes en cada una de ellas, teniendo en cuenta que la lista de las personas solicitantes que cumplan con los requisitos de residencia irá en primer lugar, la de las personas solicitantes que cumplan con los requisitos de vinculación laboral con el municipio en segundo lugar, y la otra lista irá en tercer lugar, confeccionándose entre las mismas la lista provisional.

A la primera persona seleccionada del primer cupo se le asignará la primera vivienda del expediente otorgado por el Departamento de Empleo y Políticas Sociales en la calificación Provisional de las viviendas de Protección Oficial. El resto se asignará correlativamente.

## 10.- PERSONAS ADJUDICATARIAS.

El sorteo notarial asignará una vivienda concreta, en base a su número de expediente a cada una de las personas optantes que hayan resultado afortunadas en el sorteo.

Siguiendo el orden establecido en el sorteo se confeccionarán los listados de espera para ocupar las vacantes que se produzcan. En todos esos supuestos se cubrirán las viviendas que hayan quedado sin persona adjudicataria en función del cupo en el que se haya producido la vacante.

Las listas de personas adjudicatarias provisionales, incluida la lista de espera, se publicarán en los tablones de anuncios del Ayuntamiento de Hernani, en la página web del Ayuntamiento ([www.hernani.eus](http://www.hernani.eus)) y en la página web de PROMOCIONES ARROKA 2017 S.L. ([www.sukia.com](http://www.sukia.com)) y se abrirá un período de 10 días hábiles para la presentación de reclamaciones.

La adjudicación provisional será notificada también personalmente a las personas agraciadas, quienes serán requeridas en su caso para que en el plazo de 10 días hábiles procedan a presentar la documentación relativa a los requisitos de obligado cumplimiento que no hubieran acreditado previamente. Se tendrá por desistidas a todas aquellas personas que no cumplieran el requerimiento citado, circunstancia que dará lugar a que se dé oportunidad a las siguientes

zaie.

Behin-behineko esleipendun izan direnak behin betiko bihurtuko dira, horien datu pertsonalak egiazkoak direla, aurkeztutako dokumentazioa zuzena dela eta eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ondoren. Horrela ez bada, hau da, egiaztatzen bada esleipendun izan denak ez dituela betetzen oinarri hauetan eta gai honetan indarrean dagoen araudian eskatutako betebeharrak eta baldintzak, pertsona edo bizikidetzaren unitate horrek plaza bat hutsik utziko du, eta itxarote zerrendetako hurrenkerari jarraiki beteko da.

Zozketan parte hartu ez duten eskatzaile berriak itxarote-zerrendan sartuko dira.

#### **11.- UKO EGITEA**

Esleitutako etxebizitzetako uko egiten dieten pertsona edo bizikidetzaren unitate esleipendunak Hernaniko Udalaren etorkizuneko zozketetan parte hartzeko baztertuak geratuko dira bi urteko epean.

#### **12.- ESLEIPENAREN ONDORENGO BETEBEHARRAK.**

- Etxebizitza hauetako baten esleipendunek erreserba-agiria eta jabetzaren salerosketa kontratuaren agiria betetzeko izapideak egin beharko dituzte. Alde horretatik, nahitaez titularkide izan behar dutenek, oinarri hauen 2 A) 1 atalean adierazitakoarekin bat etorriz, erreserba-agiria izenpetu beharko dute 3 eguneko epean, esleipena jakinarazten zaien egunetik kontatzen hasita, baita salerosketa-kontratua ere, 15 eguneko epean, jabetzak hori jakinarazten dien egunetik kontatzen hasita. Erreserba agiria edo salerosketa-kontratua izenpetzeko emandako epean esleipenduna justifikaziorik gabe agertzen ez bada, pertsona horrek esleipenari uko egin diola ulertzea eragin dezake, eta beraz, itxarote-zerrendan dagoen hurrengo pertsonari edo bizikidetzaren unitateari aukera emango zaio, 10. apartatuan adierazitako salbuespen berberarekin.

personas que figuren en el listado de espera que corresponda.

Las personas que hayan resultado adjudicatarias provisionales pasarán a ser definitivas una vez que se compruebe que sus datos personales y la documentación que hayan aportado es correcta y se ajusta a las condiciones requeridas. Si no fuera el caso, es decir, si se comprobara que quien haya resultado persona adjudicataria no cumple los requisitos y condiciones exigidas en estas bases y en la normativa vigente en la materia, dicha persona o unidad convivencial dejará una plaza vacante, que quedará cubierta igualmente siguiendo el orden de los listados de espera.

Las nuevas personas solicitantes que no hubieran participado en el sorteo, se incorporarán a la lista de espera.

#### **11.- RENUNCIA.**

Las personas o unidades convivenciales adjudicatarias que renuncien a las viviendas adjudicadas quedarán excluidas para participar en futuros sorteos del Ayuntamiento de Hernani, por el plazo de dos años.

#### **12.- OBLIGACIONES POSTERIORES A LA ADJUDICACIÓN.**

- Las personas adjudicatarias de una de estas viviendas han de cumplir las formalidades de celebración del documento de reserva y del contrato de compraventa de la propiedad. En este sentido, quienes forzosamente han de ser cotitulares, de acuerdo con lo indicado en el apartado 2 A) 1 de estas bases, deben firmar el documento de reserva en el plazo de 3 días, a contar desde la notificación de la adjudicación y el contrato de compraventa en el plazo de 15 días a contar desde la notificación efectuada por la propiedad. La incomparecencia injustificada de la persona adjudicataria en el plazo concedido para la firma del documento de reserva o del contrato de compraventa podrá dar lugar a que se considere que dicha persona ha desistido de la adjudicación, con la consiguiente oportunidad a la siguiente persona o unidad convivencial que se encuentre en los listados de espera, con la misma salvedad expresada en el apartado 10.



- Babes ofizialeko etxebizitzak lagatzea eta horretarako beharrezko baimena. Esleitu diren babes ofizialeko etxebizitzak ezingo dira akuran edo prekarioan laga, Gipuzkoako Etxebizitza Ordezkaritzak horretarako berariaz emandako baimenik eduki ezean.

- Kontratuei oniritzia ematea. Babes ofizialeko etxebizitzak jabetza osoan eskualdatzeko kontratu guztiei oniritzia eman beharko die Gipuzkoako Etxebizitza Ordezkaritzak, eta oniritzi hori gabe ez dute jabetza Erregistroan sarbiderik izango.

### **13.- LEHENTASUNEZ EROSTEA ETA ATZERA ESKURATZEA.**

Promozioren xede diren etxebizitzek etxebizitza babestuen kalifikazio iraunkorra edukiko dute. Horren ondorioz, gehieneko eskualdaketa-prezioaren mende egongo dira iraunkorki, baina baita lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidearen mende ere, lehenik eta behin Udalaren alde, eta, nolana ere, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren alde, subsidiarioki.

Lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea indarreko araudian ezarritako moduan gauzatuko da.

### **14.- BERTAN BIZI BEHAR IZATEA ETA OKUPATU GABEKO ETXEBIZITZAK DESJABETZEA.**

Salerosketa-kontratuan, baldintza gehigarri bat jasoko da, eta horren arabera, onuradunak hitz emango du etxebizitza okupatuko duela eta bertan erroldatuko dela, kontratua sinatzen duenetik hiru hilabetera gehienez ere. Baldintza hau ez betetzea kontratua deuseztatzeko eta etxebizitza jabearen izaera galtzeko arrazoi izango da.

Esleitutako etxebizitzek beren titularren ohiko bizileku iraunkorra izan behar dute, eta ezingo dira inola ere bizilagunik gabe eduki horretarako bidezko arrazoirik gabe urtebete baino epe luzeagoan, ezta dagokion baimenik gabe eskualdatu ere. Aurreko obligazio hori eta indarreko araudian ezarritako gainerako betebeharrak betetzen ez badira, Udalak eta, subsidiarioki, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza alorrean eskumena duen Sailak, legeriak aitortutako nahitaezko

- Cesión de las viviendas de protección oficial y necesaria autorización. Las viviendas de protección oficial, que hayan sido adjudicadas, no podrán ser cedidas en arrendamiento ni en precario, salvo autorización expresa en este sentido por parte de la Delegación de Vivienda de Gipuzkoa.

- Visado de los contratos. Todos los contratos de transmisión en plena propiedad de las viviendas de protección oficial habrán de ser visados por la Delegación de Vivienda de Gipuzkoa y no tendrán acceso al Registro de la Propiedad sin dicho visado.

### **13.- TANTEO Y RETRACTO.**

Las viviendas objeto de la promoción tendrán la calificación permanente de viviendas protegidas. Consecuentemente, estarán sujetas de forma permanente no sólo al precio máximo de transmisión, como al ejercicio de los derechos de tanteo y retracto a favor, en primer lugar a favor del Ayuntamiento de Hernani, y en todo caso, subsidiariamente a favor de la Administración General de la Comunidad Autónoma.

El derecho de tanteo y retracto se efectuará en la forma establecida en la normativa vigente.

### **14.- OBLIGACIÓN DE RESIDENCIA Y EXPROPIACIÓN DE VIVIENDAS NO OCUPADAS.**

En el contrato de compraventa se incluirá la cláusula condicional por la que la persona beneficiaria se compromete a la ocupación y empadronamiento en la vivienda en el plazo máximo de tres meses desde su firma. El incumplimiento de esta condición constituirá causa de resolución del contrato y la pérdida de la condición de persona propietaria.

Las viviendas adjudicadas deberán constituir el domicilio habitual permanente de sus titulares, sin que bajo ningún concepto puedan mantenerse deshabitadas sin justa causa por plazo superior a un año, ni transmitir las mismas sin la oportuna autorización. En caso de incumplimiento de la anterior obligación y del resto de las obligaciones establecidas en la normativa vigente, el Ayuntamiento y subsidiariamente el Departamento competente en materia de Vivienda del Gobierno Vasco

desjabetzearen eskubidea erabili ahal izango du.

#### 15.- JURISDIKZIO ESKUDUNA

Jatorria Oinarri hauetan duten auzi edo liskar guztiak argitzeko Jurisdikzio eskuduna Administrazioarekiko Auzietarakoa izango da.

Oinarri hauen aurka berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, edo zuzenean, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioan, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitako modu eta epeetan.

#### 16.- DATUAK BABESTEIA

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betez, jakinarazten da eskainitako datuak eta, halaber, erdiestea baimentzen direnak, Udalaren titulartasunpeko fitxategietan sartuko direla horien tratamendurako, oinarri hauetan ezarritako helburuarekin. Era berean adierazten da, parte hartzeko eskabidea aurkeztuz baimena ematen zaiola Hernaniko Udalari, Iragarkien Taulan eta udalaren webgunean eskatzaileen identifikazioari (NAN, izena eta abizenak), bizikidetzaren unitatearen osakerari, parte hartzen duten zerrenda eta kupoari eta, hala egokituz gero, baztertuak izateko arrazoari buruzko datuak argitaratu ditzan.

#### 17.- ORDEZKO ARAUDIA

Oinarri hauetan aurreikusi ez diren gaietan ondorengo araudian ezarritakoa aplikatuko da:

- 2008/39 DEKRETUA, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzkoa (EHAA, 59. zk, 2008ko martxoaren 28an argitaratua).
- 2011ko irailaren 14ko AGINDUA,

podrá ejercer el derecho de expropiación forzosa reconocido en la legislación.

#### 15.- JURISDICCIÓN COMPETENTE.

Para dilucidar todas aquellas cuestiones o contenciosos, cuyo origen se encuentre en estas Bases, la Jurisdicción competente será la Contencioso-Administrativa.

Contra estas bases se podrán interponer recurso de reposición en el plazo de un mes desde el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa o directamente ante la jurisdicción contencioso-administrativa en la forma y plazos previstos en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

#### 16.- PROTECCIÓN DE DATOS.

En cumplimiento de la Ley Orgánica 3/2018 de 5 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, se informa que los datos que se aportan así como los que se autorizan a obtener serán incluidos para su tratamiento en los ficheros titularidad del Ayuntamiento con la finalidad establecida en estas bases. Asimismo se informa que mediante la presentación de la solicitud de participación se autoriza al Ayuntamiento de Hernani para que publique en el Tablón de anuncios y en la web municipal datos relativos a la identificación de las personas solicitantes (DNI, nombre y apellidos) composición de la unidad convivencial, lista y cupo por el que participan y, en su caso, causa de exclusión.

#### 17.- NORMATIVA SUPLETORIA.

En lo no previsto en las presentes bases, será de aplicación lo establecido en la siguiente normativa:

- DECRETO 39/2008, de 4 de marzo, sobre régimen jurídico de viviendas de protección pública y medidas financieras en materia de vivienda y suelo (BOPV n.º59, 28 de marzo de 2008).
- ORDEN de 14 de septiembre de 2011,

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako Sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko eskatu beharreko urteko diru-sarrera haztatuen mugak aldatzekoa (EHAA, 187. zk, 2011ko irailaren 30ean argitaratua).

- 2012ko urriaren 15eko AGINDUA, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako Sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa (EHAA, 211. zk, 2012ko urriaren 31n argitaratua).
- 2012ko abenduaren 12ko AGINDUA, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako Sailburuarena, honako agindu honetako akatsak zuzentzeko dena: "2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako Sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa" (EHAA, 251. zk, 2012ko abenduaren 28an argitaratua).
- 2012ko abenduaren 12ko AGINDUA, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako Sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzak erosteko aukera ematen duen alokairuari buruzkoa (EHAA, 251. zk, 2012ko abenduaren 28an argitaratua).
- 210/2019 DEKRETUA, abenduaren 26koa, kreditu-erakundeen eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzorua arloko finantza-lankidetzakoa, eta etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak aldatzekoa (EHAA, 12. zk, 2020ko urtarrilaren 20ean argitaratua).
- 3/2015 LEGEA, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena. (EHAA, 119. zk, 2015eko ekainaren 26ean argitaratua).

del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, de modificación de los límites de ingresos anuales ponderados exigibles para el acceso a la vivienda de protección oficial (BOPV nº187, 30 de septiembre de 2011).

- ORDEN 15 de octubre de 2012, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, del registro de solicitantes de vivienda y de los procedimientos para la adjudicación de Vivienda de Protección Oficial y Alojamientos Dotacionales de Régimen Autonómico (BOPV nº211, 31 de octubre de 2012).
- ORDEN de 12 de diciembre de 2012, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, por la que se corrigen errores de la: " Orden de 15 de octubre de 2012, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, del registro de solicitantes de vivienda y de los procedimientos para la adjudicación de Viviendas de Protección Oficial y Alojamientos dotacionales de Régimen Autonómico" (BOPV nº251, 28 de diciembre de 2012).
- ORDEN de 12 de diciembre de 2012, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, sobre el arrendamiento con opción de compra de las viviendas de protección oficial (BOPV nº251, 28 de diciembre de 2012).
- DECRETO 210/2019, de 26 de diciembre, de colaboración financiera entre las entidades de crédito y la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en materia de vivienda y suelo y de medidas complementarias en materia de vivienda (BOPV nº12, de 20 de enero de 2020).
- LEY 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda (BOPV nº119, de 26 de junio de 2015).

I. ERANSKINA: HERNANIKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO AI (HI) FL.07.1 (FLORIDA) LURZATIAN ERREGIMEN OROKORREKO BABES OFIZIALEKO 6 ETXEBIZITZA ETA ERANSKINAK

ANEXO I: 6 VIVIENDAS DE PROTECCIÓN OFICIAL DE RÉGIMEN GENERAL Y SUS ANEJOS EN LA PARCELA AI (HI) FL.07.1 DE LAS NN.SS DE HERNANI (FLORIDA)

ETXEBIZITZAK / viviendas					GARAJEAK / Garajes			TRASTELEKUAK / Trasteros			
SOLAIRUA	ESKUA	LOGELAK	AZALERA M2E	PREZIOA (BEZ kanpo)	ZBKIA.	AZALERA M2E	PREZOA (BEZ kanpo)	ZBKIA.	AZALERA M2E	PREZIOA (BEZ kanpo)	DENETARA (BEZ kanpo)
Planta	Mano	Habitaciones	Superficie (M2u)	Precio (sin IVA)	Número	Superficie (M2u)	Precio (sin IVA)	Número	Superficie (M2u)	Precio (sin IVA)	Total (sin IVA)
2	A	2	60,00	128.586,48 €	16 (S-1)	24,48	17.709,13 €	3 (S-1)	4,79	3.465,14 €	149.760,75 €
	B	2	55,47	119.246,87 €	15 (S-1)	25,38	18.360,20 €	4 (S-1)	3,92	2.835,78 €	140.442,65 €
	C	2	69,58	145.912,20 €	10 (S-1)	26,22	18.967,86 €	1 (S-1)	7,54	5.454,53 €	170.334,59 €
3	A	2	60,01	128.604,57 €	11 (S-1)	24,7	17.868,28 €	2 (S-1)	5,53	4.000,47 €	150.473,32 €
	B	2	55,47	119.246,87 €	12 (S-1)	26,08	18.866,58 €	7 (S-1)	8,05	5.823,47 €	143.936,92 €
	C	2	69,58	145.912,20 €	34 (S-2)	23,72	17.159,33 €	15 (S-2)	4,89	3.537,48 €	166.609,01 €